

LANKIDETZA-HITZARMENA,
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL
ERAKUNDEAREN ETA EUDEL-
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN
ARTEKOA, UDALERRI TXIKIETAN
BERDINTASUN-POLITIKAK DINAMIZATU
ETA AHOLKATZEKO ZERBITZUA
GARATZEN LAGUNTZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA
MUJER Y EUDEL-ASOCIACIÓN DE
MUNICIPIOS VASCOS PARA CONTRIBUIR
AL DESARROLLO DEL SERVICIO DE
DINAMIZACIÓN Y ASESORAMIENTO EN
POLÍTICAS DE IGUALDAD A MUNICIPIOS
DE MENOR TAMAÑO.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 24a.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de febrero de 2014.

ELKARTU DIRA

SE REÚNEN

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea,
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde
zuzendaria.

Dña. Izaskun Landaida Larizgoitia, Directora de
EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.

Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, EUDEL-
Euskadiko Udalen Elkartearen presidentea.

Dña. Ibone Bengoetxea Otaolea, Presidenta de
EUDEL-Asociación de Municipios Vascos.

PARTE HARTU DUTE

INTERVIENEN

Izaskun Landaida andreak, Emakunde-
Emakumearen Euskal Erakunde
egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 31ko
214/2006 Dekretuaren 17.2f) artikuluari jarraiki.

La Sra. Izaskun Landaida Larizgoitia en virtud del
artículo 17.2 f) del Decreto 214/2006, de 31 de
octubre, por el que se establece la estructura orgánica
y funcional de EMAKUNDE- Instituto Vasco de la
Mujer.

Ibone Bengoetxea Otaolea andreak, EUDELEko
estatutuen 21. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

La Sra. Ibone Bengoetxea Otaolea, en virtud de lo
establecido en el artículo 21 de los Estatutos de
EUDEL.

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

Lehenengoa.- EUDELEN oinarritzko helburuen
artean daude udal-autonomia defendatzea, beste
erakunde batzuen aurrean toki-interesak politikoki
ordezkatzzea, eta elkarteko udalerriei aholkularitza-
eta koordinazio-zerbitzua ematea. Izan ere, eremu
honetan, EUDELEK jarduerak hauek egiten ditu
nagusiki:

Primero.- Entre los objetivos básicos de EUDEL se
encuentra la defensa de la autonomía municipal, la
representación política de los intereses locales ante
otras instituciones y la prestación de servicios de
asesoramiento y coordinación a los municipios
asociados. Así las actividades de EUDEL en este
ámbito se centran, principalmente en:

- a) Toki-ordezkeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean jardunbide egokiak susta ditzaten sentsibilizatzea, aukera-berdintasunaren nozioa udalerrriaren eguneroko alderdi guztietan txertatzearen garrantzia azpimarratuz.
 - b) Emakumeen eta gizonen berdintasun-aren alorrean, Europako Batzordeak finkatutako gidaleroei jarraituz, udalerriek kudeatu ditzaketan Erkidegoko politika eta ekintzei buruz udalerrriak informatzea, eta politika eta ekintza horiek sustatzea.
 - c) Emakumeen eta gizonen berdintasun-aren dimentsioa udalaren eskumenpeko politika eta ekintza guztietan txerta dadin sustatzea.
- a) Sensibilizar a las y los representantes locales para que promuevan el desarrollo de buenas prácticas en materia de igualdad de mujeres y hombres, haciendo hincapié en la importancia de incorporar la noción de igualdad de oportunidades a todos los aspectos de la vida cotidiana del municipio.
 - b) Informar a los municipios y promocionar aquellas políticas y acciones comunitarias en materia de igualdad de mujeres y hombres susceptibles de ser gestionadas por los municipios, siguiendo las líneas directrices que marca la Comisión Europea.
 - c) Fomentar la integración de la dimensión de la igualdad de mujeres y hombres en todas las políticas y acciones de competencia municipal.

Bigarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikularekin bat etorritik, Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea -benetakoa eta eraginkorra-, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kultura eta gizartearen alor guztietan.

Aipatu Legearen 3. artikuluko a), h) eta ñ) idatzietan ezartzen denez, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen funtzioak izango dira aipatu xedek lortzeko jarraibideak egitea eta horiek euskal botere publikoek aplikatu ditzaten bultzatzea; eta aipatu botere publikoek garatzen dituzten jardun-programetatik emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen berdintasunean eragina izan dezaketanak koordinatzeko neurriak bultzatzea. Orobat, Erakundearen helburuak lortzen laguntzen duten xede edo egitekoak dituzten elkarte, fundazio eta beste erakunde batzuekin harremanak eta partaidetza-bideak ezartzea dagokio.

Horren haritik, Erakundearen helburuetako bat da toki-administrazioen esku-hartzea indartzea eta bultzatzea emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko esparruan, eta sexuen arteko desberdintasunaren erakusgarriak larrienean: emakumeen aurkako indarkerian. Toki administrazioak funtsezko zeregina du alor horretan. Izan ere, udal-erriaren lurralde-dimentsioa kontuan hartuta, espazio horretan gauzatzen da aipatutako desberdintasuna; antolamendu-dimentsioa kontuan hartuta, berriz, gizarte-arazo horretatik eta horren eraginpean

Segundo.- De acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

La mencionada Ley establece, en los apartados a), h) y ñ) de su artículo 3, que serán funciones de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer elaborar directrices destinadas a la consecución de los fines anteriormente referidos e impulsar su aplicación por los distintos poderes públicos vascos, así como impulsar medidas de coordinación necesarias entre los programas de actuación a desarrollar por aquéllos que tengan incidencia en la situación de las mujeres y en la igualdad de mujeres y hombres. Asimismo, le corresponde el establecimiento de relaciones y cauces de participación con asociaciones, fundaciones y otros entes y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de los objetivos del instituto.

En este sentido, uno de los objetivos del Instituto es reforzar y potenciar la intervención de las administraciones locales en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y en la que es la manifestación más grave de la desigualdad de los sexos: la violencia contra las mujeres. La administración local juega un papel esencial en esta materia, en la medida en que el Municipio, en su dimensión territorial, es el espacio en el que se materializa esta desigualdad y porque, además, en su dimensión organizativa, es la institución pública más cercana a este problema social y a las personas

dauden pertsonengandik hurbilen dagoen erakunde publikoa da.

Hirugarrena.- Lehendakariaren, martxoaren 1eko, 8/2013 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua aldatzen duenak ezartzen duen arabera, Emakunde-Emakumearen euskal erakundeari dagokio Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko politikak zuzendu eta koordinatzea, zeren eta "Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzen zaizkio ezabatutako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren egitekoak, giza baliabideak eta baliabide materialak".

Laugarrena.- 2005eko otsailaren 24an, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zen, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udalerrien sarea abian jartzeko.

Aipatu sarea, BERDINSAREA, funtsezkoa izan da berdintasun-politikak bultzatzean, udalerririk handietan, bereziki. Hala ere, udalerririk txiki gehienentzat zaila da Berdinsarean sartzea, sartzeko betekizunak –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak-direla-eta.

Bosgarrena.- Biztanle gutxi duten udalerririk zailtasunak dituzte udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak, programak eta ekintzak garatzeko. Horregatik, hiru foru aldundiek, 2009an eta 2010ean, lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituzten EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearekin, hiru lurralde historikoetan berdintasun-politikak garatzeko dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzuak jartzeko.

Zerbitzu horien helburuen artean, honako hauek daude:

- a) Udal txikiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abian jartzeko aukera ahalbidetzea, BERDINSAREA-rekiko estrategia koherente baten arabera, epe ertainera aipatu sarean sartu ahal izateko.

afectadas por él.

Tercero.- De acuerdo con el Decreto 8/2013, de 1 de marzo, del Lehendakari, de modificación del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, corresponde a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer dirigir y coordinar las políticas sobre atención a las víctimas de la violencia de género, ya que a "Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se incorporan las funciones y medios materiales y personales de la Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género del extinto Departamento de Interior, Justicia y Administración Pública".

Cuarto.- El 24 de febrero de 2005 se firmó el Convenio de colaboración entre EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer y EUDEL-Asociación de Municipios Vascos para la puesta en marcha de una Red de Municipios Vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.

Dicha Red, BERDINSAREA, ha jugado un papel relevante en el impulso de las políticas para Igualdad, particularmente en los municipios de mayor tamaño. Sin embargo, los requisitos de acceso a BERDINSAREA en términos de contratación de personal, de elaboración de planes para la igualdad y de dedicación presupuestaria a políticas para la igualdad, entre otros, dificultan el acceso de la mayoría de los municipios pequeños a dicha Red.

Quinto.- Ante las dificultades que los municipios con menor tamaño poblacional tienen para el desarrollo de planes, programas y acciones para avanzar en la igualdad de mujeres y hombres en los municipios, las tres diputaciones forales suscriben en 2009, 2010, 2011 y 2012 convenios de colaboración con Eudel-Asociación de Municipios Vascos con el fin de poner en marcha en los tres territorios históricos servicios de dinamización y asesoramiento a municipios pequeños en el desarrollo de políticas de igualdad.


Entre los objetivos de estos servicios se encuentra el:

- a) Posibilitar que los ayuntamientos de menor tamaño pongan en marcha políticas dirigidas a promover la igualdad de mujeres y hombres, de acuerdo a una estrategia coherente con BERDINSAREA y que les permita acceder a dicha red a medio plazo.

- b) Hurreratzea, esperientziak trukatzeari, koordinatzea eta udalerrian eta /edo mankomunitatean, eskualdean edo koadrilan, elkarrekin jarduerak egitea ahalbidetzea, toki eremuan.

Helburu horiek, funtsean, jarduera hauetan mamitzen dira:

- a) Udallerri txikiei laguntza tekniko ematea emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko eta emakumeenganako indarkeria erazteko programak eta ekintzak egiteko.
- b) Mankomunitate, eskualde edo koadrilan topaketak eta bilerak antolatzea eta koordinatzea, udallerri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanari jarraipena egiteko, parte hartzen duten udalerrien artean sinergia sortu edo indartzearren.



Seigarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak, guztiak ados daudela, udallerri txikietan dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzuari lagunduko diote, udallerri horietan egiten diren ekintzen gauzapena finantzatzuz. Hori dela eta, 2011 eta 2012an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, 2013ko urtean luzatu zuten eta konpromezua hartzen dute 2014 urtean zerbitzua laguntzen jarraitzeko


Zazpigarrena.- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 17.2.f artikuluan xedatutakoari jarraiki, eskuduna da hitzarmen hau sinatzeko.

Adierazitako guztiagatik, alderdiek lankidetzaren hitzarmena izenpetzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

1.- Hitzarmen honen helburua da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzaren antolatzea, udallerri txikietan dinamizazio- eta



- b) Favorecer en el ámbito local el acercamiento, intercambio de experiencias, la coordinación y la realización de actividades conjuntas a nivel municipal y/o de mancomunidad, comarca o cuadrilla.

Estos objetivos se concretan fundamentalmente en las siguientes actuaciones:

- a) Prestar asistencia técnica a los municipios de menor tamaño para el desarrollo de programas y acciones dirigidas a impulsar la igualdad de mujeres y hombres y erradicar la violencia contra las mujeres.
- b) Organizar y coordinar encuentros y reuniones a nivel de mancomunidades, comarcas o cuadrillas, con el fin de establecer estrategias de intervención en los municipios de menor tamaño, intercambiar experiencias y hacer un seguimiento del trabajo realizado, buscando crear o reforzar la sinergia entre los municipios participantes.

Sexto.- Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y EUDEL-Asociación de Municipios Vascos se muestran de acuerdo en contribuir al servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población a través de la financiación de la ejecución de las acciones que se lleven a cabo en ellos, por lo que los años 2011 y 2012 firman un convenio de colaboración para este fin, el año 2013 lo prorrogan y muestran su compromiso de continuar apoyando este servicio durante el año 2014.

Séptimo.- La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en virtud del artículo 17.2 f) del Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, tiene competencia para la suscripción del presente Convenio.

Por todo lo manifestado, las partes acuerdan suscribir el convenio de colaboración que se regirá por las siguientes:

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto

1.- El objeto del presente convenio es articular la colaboración entre EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer y EUDEL-Asociación de Municipios Vascos para contribuir al desarrollo del servicio de

aholkularitza-zerbitzuak jartzen laguntzeko, zerbitzu horren bidez udalerrri horietan egiten diren ekintzen gauzapena finantzatzuz, hain zuzen ere.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako ekintzak finantzatu ahal izateko, udalerrri interesdunek bete beharreko baldintzak eta betekizunak adostuko eta ezarriko dituzte Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak.

Bigarrena.- EUDEL-en konpromisoak.

1.- EUDELek konpromisoa hartzen du biztanle gutxi dituzten udalerriek dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua medio egin beharreko ekintzak gauzatzen laguntzeko, bere jakintza eta esperientziaren bitartez. Betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

a) Udalerriek egindako ekintzen gauzapenari jarraipena eta ebaluazioa egitea.

b) Aurreko idatz-zatian aipatutako konpromisoak betetzeko behar diren baliabide materialak eta pertsonalak bideratzea.

c) Hitzarmen honetan aipatzen diren ekarpenak kudeatzea.

Emakunderen finantziarioa emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean eta baita genero indarkeriaren alorrean Arabako Lurralde Historikoan egiten diren ekintzak gauzatzeko erabiliko da, beste heren bat Bizkaiko ekintzetarako eta beste herena Gipuzkoako ekintzetarako. Lurralde bateko finantzatu beharreko ekintzetan, horietako bakoitzerako ezarritako zenbatekoa betetzen ez bada, soberakinak beste lurraldeetako ekintzetarako erabili ahal izango dira.

d) Urtero memoria bat egitea, aurreko idatz-zatian aipatutako konpromisoen gainekoa, eta hitzarmen hau dela-eta eskatzen zaien adina informazio eta dokumentazio osagarri ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.

2.- Halaber, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak 18.000 euro (hamazortzi mila euro) emateko betebeharra hartzen du. Biztanle gutxi duten udalerrietan dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzuaren laguntza teknikorako eta/ edo zerbitzu

dinamización y asesoramiento a municipios de menor tamaño a través de la financiación de la ejecución de las acciones que en el marco de dicho servicio se desarrollen por los municipios.

2.- EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer y EUDEL-Asociación de Municipios Vascos, establecerán de mutuo acuerdo las condiciones y requisitos necesarios que habrán de cumplir los municipios interesados para poder beneficiarse de la financiación de las acciones referidas en el párrafo anterior.

Segunda.- Compromisos de EUDEL

1.- EUDEL se compromete a aportar su conocimiento y experiencia al servicio de la ejecución de las acciones a desarrollar por los municipios de menor población en el marco del mencionado servicio de dinamización y asesoramiento, asumiendo la obligación de:

a) Desarrollar y realizar el seguimiento y evaluación de la ejecución de las acciones por parte de los municipios.

b) Habilitar los medios materiales y personales necesarios para el cumplimiento efectivo de los compromisos mencionados en el apartado anterior.

c) Gestionar las aportaciones referidas en el presente convenio de las cuales:

La financiación aportada por Emakunde se destinará a la ejecución de acciones en materia de igualdad de mujeres y hombres, así como acciones en materia de violencia de género en el Territorio Histórico de Álava, otro tercio en Bizkaia y otro en Gipuzkoa. En el caso de que las acciones a financiar en un territorio no cubran el importe preestablecido para cada uno de ellos, las cantidades sobrantes se podrán destinar a los otros territorios.

d) Elaborar una memoria anual relativa a la labor desarrollada con relación a los compromisos referidos en el apartado anterior, así como a facilitar a EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer cuanta información y documentación complementaria le sea solicitada en relación con el objeto del presente convenio.

2.- Asimismo EUDEL-Asociación de Municipios Vascos asume la obligación de aportar 18.000 euros (dieciocho mil euros) para el desarrollo de la asistencia técnica del servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y/o

hori medio udalerriek egiten dituzten ekintzak gauzatzeko bideratuko da aipatu zenbatekoa.

3.- Azkenik, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak konpromisoa hartzen du ekimen hori bere web-orrialdearen bidez eta Elkartearen beste hedabide batzuen bidez zabaltzeko. Ekimena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin batera sustatu dela adierazi beharko da. Horretarako, bi erakundeen logotipoak adierazi beharko dira, maila eta kokapen berean.

Hirugarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoak.

1.- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak biztanle gutxi dituzten udalerrien ekintzen gauzapearen kostuaren zati bat finantzatzeko betebeharrak hartzen du. 2014 urtean, gehienez ere 32.400,00 euro (hogeita hamabi mila eta laurehun euro) jarriko ditu, aurrekontu-sail honen kontura: 14.0.1.47.01.0000.3.454.99.32230.004E.

2.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak konpromisoa hartzen du ekimen hori bere web-orrialdearen bidez eta Erakundearen beste hedabide batzuen bidez zabaltzeko. Zerbitzua EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearekin batera sustatu dela adierazi beharko da. Horretarako, bi erakundeen logotipoak adierazi beharko dira, maila eta kokapen berean.

Laugarrena.- Organo kudeatzaileak.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiaztatuko du ekintzen gastuak behar bezala justifikatuta daudela, eta, hala badagokio, diru-laguntza ordainduko du, diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera.

Bosgarrena.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntza kudeatzen duen organo kudeatzaileak ordainduko du ekimen hori. Ordainketa bakarrik egingo da, Eudelek hitzarmeneko jardueren inguruan egindako gastuak justifikatu ondoren. Horretarako, hurrengo klausulan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da 2014ko abenduaren 31 baino lehen.

Seigarrena.- Justifikazioa.

Hitzarmen honetan xede den diru-laguntza justifikatzeko, egindako jardueren justifikazio-

la ejecución de las acciones que en el marco de dicho servicio se desarrollen por los municipios.

3.- Finalmente, EUDEL-Asociación de Municipios Vascos se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución, haciendo constar que ha sido promovida junto con EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer. A tal fin se hará constar los logotipos de las dos entidades con el mismo rango y posición.

Tercera.- Compromisos de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer

1.- EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer asume la obligación de financiar parte del costo de la ejecución de las acciones por parte de los municipios de menor población, mediante la aportación en el año 2014 de la cantidad máxima total de 32.400,00 euros (treinta y dos mil cuatrocientos euros), con cargo a la partida presupuestaria: 14.0.1.47.01.0000.3.454.99.32230.004E.

2.- EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer se compromete a divulgar esta iniciativa a través de su página web y otros medios de difusión de la institución, haciendo constar que el servicio está promovido junto con Eudel-Asociación de Municipios Vascos. A tal fin se hará constar los logotipos de las dos entidades con el mismo rango y posición.

Cuarta.- Órganos gestores.

El órgano encargado de comprobar la adecuada justificación de los gastos de las acciones desarrolladas y, en su caso, del pago de la subvención será Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, respecto de la cuantía subvencional que corresponda.

Quinta.- Forma de pago

La aportación se abonará a través de un pago único que se realizará previa justificación por parte de Eudel de los gastos realizados con relación a las actividades objeto del convenio, mediante la presentación antes del 31 de diciembre de 2014 de la documentación referida en la cláusula siguiente.

Sexta.- Justificación

La subvención objeto de este convenio se justificará mediante la presentación de una cuenta justificativa

kontu bat aurkeztu beharko da. Kontu horretan honako hauek jaso beharko dira:

- Bigarren klausulan adierazitakoari jarraituz, EUDELe hartuko konpromisoak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria.

- Diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. Hartzailea eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, noiz ordaindu den adierazi beharko da.

- Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak (jatorrizkoak edo konpultsatuak) eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuk. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko da.

Zazpigarrena.- Koordinazioa eta jarraipena.

Hitzarmen honetan xedatua behar bezala egiteko, Berdinsarea-berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen Jarraipen Batzordeak koordinazio- eta jarraipen-lanak egingo ditu.

Zortzigarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen den unean hasiko da, eta 2014ko abenduaren 31n amaituko, nahiz eta hitzarmenaren kontura 2014ko urtarilaren 1etik aurrera egindako jarduerak finantzatu daitezkeen.

Dena den, eta alderdiek ezer adierazi gabe berrituko da artero, baldin eta aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa badago, eta alderdietako batek hitzarmenaren amana iragartzen ez badu, epemuga baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Bederatzigarrena.- Beste laguntza eta diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Hurrengo paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, hitzarmen honen diru-laguntza bateragarria izango da xede bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek eman dituen administrazioa

de las actividades realizadas, que contendrá:

- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos asumidos por EUDEL en virtud de lo señalado en la cláusula segunda.

- Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

- Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, originales o compulsadas incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

- La relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

Séptima.- Coordinación y seguimiento

La coordinación y el seguimiento de la debida realización de lo dispuesto en el presente convenio se llevará a cabo a través de la Comisión de Seguimiento de Berdinsarea-Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.

Octava.- Vigencia

El periodo de vigencia inicial de este convenio será desde el momento de su firma hasta el 31 de diciembre de 2014, sin perjuicio de que con cargo al mismo se financien actividades desarrolladas desde el 1 de enero de 2014.

No obstante, se prorrogará tácitamente por nuevos periodos de un año, siempre que exista crédito presupuestario adecuado y suficiente y no se denuncie expresamente por alguna de las partes al menos con tres meses de antelación a su vencimiento.

Novena.- Compatibilidad con otras ayudas y subvenciones

La subvención objeto del presente convenio será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para el mismo objeto o finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea

edo entea (publikoa edo pribatua), izan Estatukoa, Europar Batasunekoa,edo nazioartekoa.

Hala ere, diruz lagundutako jardueraren kostuak inoiz ere ezingo du gaintitu diru-laguntza, ez bakarka, ez beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batuta.

Hamargarrena.- Hitzarmenaren baldintzak aldatzea eta beste laguntza batzuk jasotzea.

Diru-laguntza aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetakoren bat aldatzen bada eta Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu baten diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzen bada.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena suntsitzea.

Hitzarmena suntsiarazi egingo da honelako gorabeheraren bat gertatzen denean:

- a) Sinatu duten alderdi biak ados daudenean; hilabete aurretik jakinarazi beharko da.
- b) Alderdietako batek hartutako konpromisoak bete ezean.

Hamabigarrena.- Itzulera.

Hitzarmen hau betetzen ez bada edo emandako zenbatekoa beste zerbaiterako erabiltzen bada, ordainketa etengo da, eta horretaz gainera, kontzeptu horregatik jasotako diru-zenbatekoak itzuli egin beharko dira, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bigarren tituluan araututako zenbateko eta baldintzen arabera. Diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorioetarako.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen hau administrazioaren arlokoa da. Beraz, azken instantzian, administrazioarekiko auzietako epaitegi eskudunek aztertuko eta ebartziko dituzte hitzarmen hau dela-eta sortzen diren auziak.

Hamalauugarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Legeari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak konplitzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten

o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo siguiente.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Décima.- Alteración de las condiciones del convenio y concurrencia de ayudas

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la concesión.

Undécima.- Resolución del convenio

El presente convenio se resolverá cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Mutuo acuerdo entre las partes suscribientes, con un preaviso de un mes.
- c) Incumplimiento de los compromisos contraídos por cualquiera de las partes.

Duodécima.- Reintegro

El incumplimiento del presente convenio o la utilización para otros fines de la cantidad concedida implicará la suspensión de pagos con la obligación de reintegrar las cantidades obtenidas por tal concepto en la cuantía y términos regulados en el título segundo del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

Decimotercera.- Naturaleza del convenio

El presente convenio tiene naturaleza administrativa. Las cuestiones derivadas de este convenio serán, en última instancia, conocidas y resultas por los tribunales contencioso-administrativos competentes.

Decimocuarta.- Protección de datos de carácter personal

Las partes declaran conocer las disposiciones relativas a la Ley 15/1999 de Protección de Datos Personales, y se comprometen a cumplir las exigencias previstas en la misma respecto de los


erabiltzaileen datuei dagokienez.

datos pertenecientes a las personas usuarias que se pudieran manejar dentro del presente Convenio.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean:

Y en prueba de conformidad con lo establecido en el presente documento, y para que así conste y produzca efectos donde proceda, lo firman en tres ejemplares originales en el lugar y la fecha indicados en el encabezamiento:

**EMAKUNDE-Emakumearen Euskal
Erakundetik**
*Por EMAKUNDE-Instituto Vasco de la
Mujer*



Izaskun Landaida Larizgoitia
Zuzendaria
Directora

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartetik
*Por EUDEL-Asociación de Municipios
Vascos*



Ibone Bengoetxea Otaolea
Presidentea
Presidenta